

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 61/2018 Foru Dekretua, abenduaren 11koa. Onespena ematea aldatzeari uztailaren 10eko 34/2018 Foru Dekretua, 2018rako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, arautzen du nola parte hartu behar duen sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzen.

Hain zuzen ere, foru arau horren 29. artikulua 1. apartatuak dio Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, foru arau horretan bertan aipatzen diren interes orokorreko helburuen eremuan.

Uztailaren 10eko 34/2018 Foru Dekretuaren bidez, lehentasunezko mezenasgo jarduerak ezartzen dira 2018ko ekitaldirako.

Foru dekretu hori onetsi ondoren, eskatu da 2018ko ekitaldirako lehentasunezko mezenasgo jardueratzat jo dadila 2019an ARGIA_3 kultura elkarteak egingo duen Gasteizko Argiztapen Jaialdia.

Aztertu da elkarte horrek aurkeztutako dokumentazioa, eta jotzen da sartu behar dela uztailaren 10eko 34/2018 Foru Dekretuan, 2018rako lehentasunezko mezenasgo jarduerak ezartzen dituen.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Aldaketa hauek sartzen dira uztailaren 10eko 34/2018 Foru Dekretuan, 2018rako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen:

2018rako lehentasunezko mezenasgo jarduerak zehazten dituen uztailaren 10eko 34/2018 Foru Dekretuaren 2. artikulua Bat apartatuko i) letrari 6. puntua eranstean zaio, eta aurrerantzean honela idatzita egongo da:

«6. Gasteizko Argiztapen Jaialdirako ARGIA_3 kultura elkarteari emandako zenbatekoak.»

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2018an sortuko ditu ondorioak.

Gasteiz, 2018ko abenduaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ